



DEBAko UDALA

2016SPLE0005  
5. BILERA: OHIKOA 2016-04-28

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** bosgarrena

**Eguna:** 2016/04/28

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:00

**Onarpen-eguna:** 2016/05/26

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI


IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak**


### **Gora-beherak**



DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/03/31).
2. Auditoriaren aurkezpena.
3. Mozioa. EH Bilduk aurkeztua.
4. Mozioa. EAJk aurkeztua.
5. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/03/31)

2016ko martxoaren 31ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

### 2.- Auditoriaren aurkezpena.

Betean Auditoriak, 2014ko udal aurrekontu-likidazioaren kontu-auditoretza txostena, 2014ko abenduaren 31arteko balantzea eta galdu-irabazien analisisia egin du. Dokumentazio hori, EH Bilduri eta EAJri helarazi zaie.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordeburuak, Iñaki Esnaolak, horren ondorioen aurkezpena egin du. Esan du, Web orrialdean eskegiko direla txostenok eta horien laburpena eta asmoa dagoela urtero kontuen auditoretza egiteko. Azpimarratu du, lanak ez duela izaera politikorik ekonomikoa baizik eta badalbiltzala lanean auditoretzak proposatzen duena aplikatzeko.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, berak dokumentazioa irakurri duela eta bertan proposatuakoak, doiketa kontableak direla batik bat eta esate baterako, Sortegi auzia dela eta, funtsen hornidura egin gabe bazegoen ere, sententzia eman gabe zegoelako, egindako kudeaketa onari esker diruzaintza-gerakina egon dela ordainketari aurre egin ahal izateko. Txostena aldekoa izan dela salbuespen batzuekin eta Udalaren egoeraren irudi fidagarria ematen duela eta diru-kontuak araudiaren barnean daudela.

### Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### 3.- Mozioa. EH Bilduk aurkeztua.

#### *Iritziak eta galde erantzunak*

Aimar Lasa zinegotziak mozioaren testua irakurri egin du.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, beraiek kontra bozkatuko dutela eta horren arrazoiak eman ditu, bere ustez, integrazioaren bidean urrats bat eman beharko litzateke eta ildo horri jarraiki GFaren plana da bidea.

Alkateak adierazi du, beraiek jarrera desberdinak dauzkatela eta bakoitzak berea bozkatuko duela.



## DEBAko UDALA

Marilu Albizu zinegotziak esan du, kalean eztabaida dagoela eta Caritasek, Gizarte Langintzaren Elkargoak eta Debako apaizak, besteak beste, kaleratutako testuak aipatu ditu. Berarentzat bakoitzaren azpian zeintzuk balore dauden eta horiei buruz hausnarketa egitea da garrantzitsuen.

Jarraian, Gizarte Langintzaren Elkargoaren testua irakurri du. Bertan jasotzen dira eta azaltzen dira, “efecto llamada”, “flujo migratorio artificial”, “cultura del descarte” kontzeptuak. Testuan jasotzen da hiru Lurrealde Historikoetan laguntzak homogeneizatu egin beharko zirela, RGIa eskuratzeko urtebeteko errolda eskatu beharko litzatekeela eta gizarteratze programak abian jarri.

Aimar Lasa zinegotziari, planteatu dena eta nola planteatu den larria iruditzen zaio, erabilitako terminologia bera... Jose Luisek prestatu duen taulari erreferentiza egiten dio, bertan datuak alderatu egiten baititu. GFaren neurriak Debarrei ere eragiten die eta ezin dira begiak itxi.

Ane Egidazu zinegotziak esan du, bere taldean bakoitzak bere iritzia daukala eta bi mozio egonda ematen duela alderdi batenaren alde bozkatuz gero alderdi horren alde posizionatzen zarela eta hori ez dela horrela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>13</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>7</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBIKARAI, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ ANE MIREN EGIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>3</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BENGOETXEA, AITOR SALEGI, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	<b>3</b>
◇ <b>Emaitza:</b> MOZIOA ONARTZEA	



## DEBAko UDALA

### ***Erabakia.***

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak mozioa onartu du bozketan jasotako gehiengoarekin, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** EH Bilduk aurkertutako mozioa “AGI-DBL kentzearen aurka” onartzea:

- 1.- Debako Udalak bere babes adierazi nahi die, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du ongizate soziala herritar eskubidea dela. Halaber, bere aitortza adierazi nahi die Gizarte Zerbitzuen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren beremea.
- 2.- Debako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizkeratik desagertarazteko.
- 3.- Debako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio DBL izeneko prestazioa bertan behera uzteko duen asmoari uko egin diezaiola.
- 4.- Debako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora hiru urteetatik urtebetera pasa dezala, hain zuzen ere, lehen zegoen bezala.
- 5.- Debako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen laugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala.

### **4.- Mozioa. EAJk aurkeztua.**

#### ***Iritziak eta galde erantzunak***


Cristobal del Corte zinegotziak mozioaren testua irakurri egin du.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, beraiek kontra bozkatuko dutela, izan ere, mozioan Plan bati egiten zaio erreferentzia eta ez du inork ezagutzen.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>13</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>3</b>
<b>Aldeko boto-emaelek:</b> CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-	



## DEBAko UDALA

PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>8</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBIKARAI, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ PEDRO M <sup>a</sup> BENGOETXEA, ANE MIREN EGIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, Debarren Ahotsa taldeko Alkate alkate eta zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b> , AITOR SALEGI, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko zinegotziak.	<b>2</b>
◇ <b>Emaitza:</b> MOZIOA EZ ONARTZEA	

### ***Erabakia.***

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak ez du mozioa onartu bozketan jasotako gehiengoarekin, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** EAJk aurkertutako mozia “Elkar Ekin Gizarte Esku-hartze Plan Integrala martxan jartzeko” ez onartzea.

### **5.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:


24	2016/04/06	La Lubina Elkarteari baimena ematea basaxori kantarien lehiaketa egiteko	2016ALES0004
25	2016/04/21	Itziarko Toki Entitate Txikiaren izenean kontu korronte bate irekitzeko baimena	

Udalbatzarra jakinaren ganean gelditu da.

### **3.- Eskariak eta galderak.**

Maider Zubikarai zinegotziak informazioa eskatu du Debegesak kaleratu dituen lau langileen inguruan.

Alkateak esan dio datorren astean bilera daukatela eta hor eskuratuko duela informazioa, izan ere, erabakia ez da Juntatik pasatu.



DEBAko UDALA

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko apirilaren 28an

**IDAZKARIA**



